

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Egunerokoa



ARITZ GALARRAGA

Batzuek irailaren 27a eta beste batzuek azaroaren 20a markatuta daukaten bezala egutegian, nik neukan gorri deigarri urriaren 6a. Zer eta Rafael Chirbes idazlearen egunkariaren lehen alea merkaturatzen zelako. Goizean goizetik eskatu nion liburu-dealer partikularrari. Abisatuko zidala iris-tean. Handik gutxira mezua: "Rafa is in da house". Noski lehena izan nintzen liburua eskuratzen; auskalo hiri osoan. Badut bilo-bei kontatzeko moduko istorio bat.

Nahiz eta ez dakidan zergatik irakurtzen ditudan idazleen egunkariak. Are gustuko ditudan idazleen egunkariak. Idazle batzuk bertatik bertara ezagutzearen zaputx antzekoa hartzen baitut ez gutxitan. Edo, besterik ez bada, pertsona baten intimitateari egindako ia bortxaketa bat iruditzen zaidalako, are egunkaria ez denean traizio bat, idazleak argitaratzeko txukundu baitzuen -hil ondoren, hori bai-. Ni ere saiatzen naiz, Marta Sanz bezala, bazter uzten egunkariak zakarkeriatik daukatena. Eta hartzen ia jolas baten moduan: egin ditudan hipotesiak ezeztatuz edo berretsiz, idazlearen izaera imajinatuaren eta egunkarietan eraikitzen den izaeraren artean. Gauza interesgarriak ere badaudelako, beti, lehen lerroetatik: "Behin-behinekotasun sentsazioa. Aulkiaren ertzean esertzen naiz jarri beharrean erabat, ipurmasailak eroso kokatuz: izateko modu urduri bat". Eta egunkari hauek, hain justu, aspalditik espero nituelako, uda aurretik iragarri zituztenetik; are Beniarbeig, Alacanteko etxean Chirbesen iloba Manolok eskuizkribuak erakutsi zizkigunetik.

Literatura genero menostua izan arren, betidanik gogoko izan ditut memoriak, oroitzapen bildumak, biografiak, autobiografiak, egunkariak. Hemen aipatu ditugu Carlos Blanco Aguina-ga -Chirbesen maisua literatura kontuetan-, Iñaki Uriarte, Miguel Sanchez-Ostiz (denak gizonezko, puntu negatiboa). Nahiz eta egunkariak beti sortu izan didaten ezinegona; izango da idazleen egunerokoak ere gure egunerokoaren antz handiegia izan ohi duelako. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



COVID-19

LABI desegin eta neurri murriztaile gehienak bertan behera geratu dira EAEn. Musukoaren erabilera ez da aldatu, baina normaltasuna itzuli da aisialdi eta ostalaritzara. Espazio itxietan 5.000 ikusentzule bilduko dituzten lekuetan, aforoa %80koa izango da.

Musukoa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak protokolo berria bidali du eskoletara. DBHko ikasleek ez dute maskara jantzi beharko aire zabalean. Aldiz, Lehen Hezkuntzako ikasleek derrigorrez eta une oro jarri beharko dute, jarduera fisikoetan eta patioan barne.

baDa!

Aurrez aurre eta online izango da 56. Durangoko Azoka, abenduaren 3tik 8ra. 220 erakusmahai baino gehiago jarriko dituzte, eta Ahotsenea, Irudienea, Kabi@, Saguganbara eta Szenatokia guñeak ere itzuliko dira. Segi beharreko osasun neurriak aurrerago zehaztuko dituzte.